

HEDATZE 23-24

Zer da HEDATZE proiektua?

Proiektu honen bidez **ikasleek hainbat jardueratan parte hartzeko aukera daukate**. Jarduera horiek arratsalde izango dira, ohiko eskola orduetatik kanpo: **15:00 – 16:30**. Jarduera batzuk 45'koak dira, beste batzuk, berriz, ordu t'erdikoak.

Jarduerak bi motatakoak dira:

1. **Eskola indartzeak edo errefortzuak:** hainbat irakasgaietan eskolako eskakizunei jarraitzeko arazoak dituztenentzat edo pendienteak dituztenentzat. **Irakasleek erabakiko dute** zein ikaslek parte hartu beharko duten jarduera hauetan. Irakasleen aholkuati jarraituz, ikasleen parte-hartzea eskola indartzeetan ezinbestekoa izango da.
2. **Tailerak:** eskolako gaiekin zerikusia ez duten hainbat arlotan **trebatzeko jarduerak**. Denetarik: sukaldaritza, eskulangintza, kirola, hizkuntza trebakuntza, dantza, jokoak, bizikidetza... Ikastaro gehien arduradunak irakasleak izango badira ere, institutukoak ez diren arduradunak ere parte hartu dezakete: gurasoak, ikasle ohiak... **Ikasleek aukeratu dezakete** zein tailerretan parte hartu nahi duten. Hala ere, **eskola indartzeetan parte hartu behar izateak lehentasuna izango du**.

EGUTEGIA

Irailak 18-28 Septiembre	Irakasleen behin-behineko indartze orduen banaketa eta tailerren proposamenak jaso.
Urriak 2-11	Ikasleei tailer eskaintzari buruzko informazioa helarazi tutoreen laguntzaz eta haien erantzunak jaso. Galdetegi baten bitartez (On-line) ikasleek aukeratu ahal izango dute lehentasunaren arabera zein tailerratan parte hartu nahi duten.
Urriak 16-20	1.Txandako indartze orduen behin-betiko banaketa eta tailerren antolaketa. Urriak 16-19 1. Aurrebaluazioa DBH
Urriak 23 – Otsailak 7	1. TXANDA: 11 aste - egun bat , azaroak 1 (asteazkena) Ondorengo asteetan ez da Hedatze saiorik izango: Azaroak 23-29. 1. Ebaluazioa DBH Abenduak 4-5 Konstituzioaren zubiaren bezpera. Urtarrilak 23-26 2. Aurrebaluazioa DBH
Otsailak 15-16	2.txandako indartzeen eta tailerren antolaketa.
Otsailak 19- Maiatzak 29	2. TXANDA: 11 aste – egun bat, maiatzak 1 (asteazkena) Ondorengo asteetan ez da Hedatze saiorik izango: Martxoak 11-15. 2. Ebaluazioa DBH Maiatzak 13-16. 3. Aurrebaluazioa DBH
<u>EGUTEGI OSOA</u>	